PROPOSICIÓN DE LEY POR UN SISTEMA DE PROTECCIÓN SOCIAL PÚBLICO Y DE CALIDAD. CONTRA LA POBREZA Y LA EXCLUSIÓN SOCIAL

BABES SOZIALEKO SISTEMA PUBLIKOA ETA KALITATEZKO BATEN ALDEKO H.E.L. POBREZIAREN ETA BAZTERKERIA SOZIALAREN AURKA

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

ZIOEN AZALPENA

Egungo Hego Euskal Herriko bazterkeria sozial eta pobrezia mailak kezka larria eragiten du. Kutsu neoliberaleko politika publiko, erreforma, krisi ekonomiko, lan prekarietate hazkor, murrizketa eta abarren ondorioz egunez egun biztanleriaren sektore gero eta handiagoa bizi da baliabide ekonomiko nahikorik gabe gutxieneko ongizate maila bat izateko (askatasun ekonomikoa, etxebizitza, energia, elikadura, haurren garapena, aisia eta kultura).

Gaurko lan merkatuak, gero eta prekarioagoa eta desberdintasun handiagoa duena, pobretu egiten du eta ez ditu baliabide ekonomiko nahikoak bermatzen. Hedatzen ari da langile pobreen fenomenoa, hilabete amaiera iritsi ezinik bizi direnena, ikusten ez den pobreziaren biktimak, esaterako energia eta botika beharrizanak estaltzeko, edota haurren pobrezia.

Diskriminazioa areago luzatzen da emakumeen kasuan, profesionalki segregatuta dagoen lan merkatuan. Lan merkatu honek eragotzi egiten du bizi-proiektu independente bat garatzeko autonomia iristea.

Halaber, gazteen egoera ez da bat ere desiragarria. Bizimodu duina bermatuko dien enplegua lortzeko aukerak oso urriak dira, eta langabezia nahiz prekarietate tasa itxuragabeak pairatzen dituzte. Etorkizuneko proiektu bat sortzea erabat ezinezkoa gertatzen zaie.

Egia da babes sozialeko gutxienekoak bermatze aldera badirela gutxieneko arau batzuk, esaterako 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, zeina gero Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, garatu zuen, eta lehena aldatu zuen 4/2011 Legea, baita 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, baina bestalde gaur egun ez dira nahikoak.

Pentsioak hainbat eratara murriztu izan dira (pentsio berrien murrizketa, erretiratzeko adina atzeratzea, erosteko ahalmenaren galera). Prestazio sozialek, esaterako Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak, gero eta jende gehiago babesik gabe uzten dute, eta jasotzekotan zenbateko gero eta txikiagoarekin. Sistema berez ez zen nahikoa, baina gainera hainbat murrizketa egin izan dira, zenbatekoan eta zenbait kolektibori laguntza jasotzeko aukera ukatuz. Edota prestazioak ez dira eskubide legez aitortzen, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen eta etxebizitza izateko eskubide efektiboaren kasuan. Horren ordez ohikoa izan da, eta oraindik ere hala da, laguntza ekonomikoak ematea, irizpide gero eta zorrotzago eta murriztaileagoak ezarriz, eta oso zenbateko urriarekin.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eredu neoliberalarentzako alternatiba proposatzen du; bere eredu ekonomiko eta sozialak lehentasun osoa ematen dio bizitzaren eta Lurraren defentsari, eta ez gutxiengoaren interesei; lana kapitalaren gainetik kokatzen du, eta pertsonak, merkatuaren gainetik.

Taxuzko eta benetako politika publikoak behar dira aberastasuna banatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko (sozialki baliagarria, egonkorra eta bidezko ordaina duena), lanaldiaren murrizketa eta banaketa lortzeko. Ezinbestekoa da lana bere osotasunean aintzat hartzea, lan produktiboa zein erreproduktiboa barne.

Halaber, Eskubide Sozialen Kartak uste du gizarte- eta lan-politikei buruzko erabakiak gure lurralde-eremuan hartu behar direla; horretarako aurrera egin behar da Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparruan.

Eredu alternatibo honen baitan, beharrezko jotzen dugu eskubide sozialak bermatu eta hobetuko dituzten neurriak hartzea, pobreziari eta bazterkeria sozialari aurre eginez. Horretarako honako aldaketak beharrezko jotzen ditugu:

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko Legeari dagokionez bertan behera utzi behar dira Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan egindako murrizketak, eta bere estaldura zein Gizarte-Larrialdietako Laguntzena hobetu.

Etxebizitza Legean, alokairu sozialeko bizilekua izateko eskubide subjektiboa benetan aitor dadin, instituzioak derrigortuz beharrizan sozialei erantzuna ematera.

Hori dela eta proposatzen da honako

TESTU ARTIKULATUA

1. Artikulua: Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko legeari dagokionez (18/2008 legea, abenduaren 23koa), zeina Diru Sarrerak Bermatzeko errentari buruzko 147/2010 maiatzaren 25eko Dekretuak garatu zuen, eta lehena aldatu zuen 4/2011 legeari dagokionez, hau proposatzen da:

A.- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko legearen (18/2008 legea, abenduaren 23koa) eskubidearen titularrei buruzko 16. artikuluan, b) eta d) azpiatalen aldaketa, hauek honela idatzita geratuko liratekeelarik:

16. artikulua, b) azpiatala:

Eskabidea egiten den unean Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenago Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea. Urte bete baino gutxiago izatekotan, bertan benetan bizitzearen frogak onartuko dira urtebeteko baldintza osatu arte.

Eskabidea egin aurreko gutxieneko epealdi hori bete ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea azken hamar urteetan bost urtez.

16. artikulua, d) azpiatala:

18 urtetik gorakoa izatea. Gutxieneko adin muga hau salbuetsi egingo zaie adin hori bete ez baina gainerako eskakizunak betetzen dituztenei, baldin eta honako egoeraren batean badaude:

- Diru-sarrera aski ematen duen enplegua izatea, lan-sarreren errenta osagarriari buruz lege honetako 20.2 artikuluan jasotako baldintzetan.

- Baliaezintasuneko pentsioa jasotzen dutenak.

- Adingabeak zein ahalmen-urritasunen bat duten adindunak edo mendekotasuna onartuta duten adindunak ekonomikoki beren ardurapean dituztenak.

- Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.

- Ezkonduta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona batekin loturik daudenak gutxienez sei hilabete lehenagotik.

- Genero-bortizkeriaren biktima izan direnak.

B.- 20. artikuluaren aldaketa.- Zenbatekoa finkatzea. 1. azpiataleko b) eta c) hizkiak aldatzen dira; 2. azpiataleko b) hizkia, eta artikuluaren amaieran 3 zenbakia izango duen azpiatal berri bat gehitzen da. Honela geratuko litzateke erredakzio berria:

20. artikulua, 1.b) azpiatala:

Bizikidetza-unitate bakoitzari aplika dakiokeen prestazioaren hileko zenbatekoa honela kalkulatuko da: eskatzailearena bezalako bizikidetza-unitateentzako prestazioaren bidez bermatutako

gutxieneko diru-sarreren eta eskatzailearen bizikidetza- unitateak eskura dituen diru-sarreren arteko diferentziaren arabera.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren portzentaje gisa definituko dira, eta honakoak izango dira:

- Pertsona bakarreko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren %100.

- Lanbide arteko gutxieneko soldataren %150 bi pertsonako bizikidetza-unitateentzat.

- Hiru pertsona edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren %200.

Bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarrerak zeintzu diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, kapitulu honen 2. azpiatalean aurreikusitako moduan.

20. artikulua, 1.c) azpiatala:

9.2 artikuluan definitzen den motako bizikidetza-unitateentzat, bermatutako gutxieneko diru-sarreren zenbatekoak kalkulatzeko portzentajeak artikulu honetako 1.b) azpiatalean finkatutako berak izango dira.

20. artikulua, 2.b) azpiatala:

2. Laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan:

b) Bizikidetza-unitate bakoitzari aplika dakiokeen laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren hileko zenbatekoa honela kalkulatuko da: eskatzailearena bezalako bizikidetza-unitateentzako prestazioaren bidez bermatutako gutxieneko diru-sarreren eta eskatzailearen bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarreren arteko diferentziaren arabera.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak portzentaje gisa definituko dira, eskabidea egin zen unean indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldata oinarri hartuta, eta artikulu honetako 1.b) azpiatalean finkatutako berak izango dira.

Laneko errentek Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak kaltetzea ekiditeko helburuz, zenbaketatik kanpo geratuko dira zenbait diru-sarrera, norbere kontura edo inoren kontura egindako lanetik eratorriak, eskatzaileari dagozkionak edo bere bizikidetza-unitateko beste kide batzuri dagozkionak. Araudiaren arabera ezarriko da aipatu portzentaia aplikatzeko formula.

20. artikuluan azpiatal berria, 3 zenbakia izango duena, honako testuarekin:

20. artikulua, 3. azpiatala:

Legea indarrean sartzen denetik zenbateko hori gutxienik urtero eguneratuko da, aurreko ekitaldiko LAGSak edota KPIak iza- ten duten igoera handienaren arabera.

C.- 17. artikuluaren aldaketa.- Titular bat baino gehiago batera gertatzea, 2. azpiatalari dagokionez, honela idatzita geratuko delarik:

17. artikulua, 2. azpiatala:

Etxebizitza edo bizitoki berean hainbat bizikidetza-unitate badira eta beren artean ez badute 9.1.b artikuluan aurreikusitako loturarik, guztiek eskuratu ahalko dute titulartasuna, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte, etxebizitza edo bizitoki berean jaso daitezkeen laguntza kopuruaren mugarik gabe.

D.- 23. artikuluaren aldaketa.- Eskubidearen iraupena, honela geratuko delarik:

23. artikulua:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea, errentaren modalitatea edozein izanik ere, aitortuta gelditzen da errenta hori ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten birtartean eta lege honetan jasotzen diren betebeharrak betetzen diren bitartean, epealdirik finkatu behar izan gabe.

E.- 3. atalari, hots, Gizarte-larrialdiko laguntzei buruzkoak

44. artikuluaren aldaketa.- Definizioa eta ezaugarriak, bere 1. azpiatalean; testua honela geratuko da:

44. artikulua, 1. azpiatala:

Gizarte-Larrialdietarako laguntzak diru-laguntzak dira, aldian-aldian emango ez direnak, zeintzuk bizikidetza-unitate bateko kide diren pertsona guztien eskubide subjektibo gisa taxutzen diren, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoei, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez dutenak, prestazioa jasotzeko berariaz arututako baldintzak betetzen dituztenean.

6. artikuluko 3. azpiatala kentzea. 44.1 artikulu berriarekin kontrajarrita dagoelako.

2. artikulua: Euskal Herriko 3/2015 legea, ekainaren 18koa, etxebizitzarena. proposamena:

A) 9. artikuluaren idazkera berria: eskubide subjektiboa betetzeko moduak eta exijitzeko baldintzak, 1., 2. eta 3. azpiataletan, zeintzuk honela geratuko liratekeen:

9. artikulua, 1., 2. eta 3. azpiatalak:

1. Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea bete behar dute horretarako eskumena duten euskal administrazio publikoek, alokairuan eskura jarrita etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat, edo baita etxebizitza libre bat ere, baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren batengatik edo beste arrazoi batzuengatik, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanonarekin.

2. Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen sistemak inoiz ez du aurreko azpiatalean jasotako eskubidea ordezkatuko.

3. Administrazio publiko eskudunei etxebizitza izateko eskubidea exijitzeko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- Etxebizitza edo bizitoki egonkor edo egokirik gabe egotea. Etxebizitza egokia ez izatearen arrazoiak izan daitezke juridikoak, bizigarritasuna, tamaina, ahalmen ekonomikoa edo eguneroko bizitegi normalizatua izatea zailtzen duen beste edozein.

- Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan baliozko eran izena emanda egotea.

B) 25. artikuluaren idazkera berria.- Babes publikoko etxebizitzen prezioa edo errenta eta zuzkidura-bizitokien errenta edo kanona. Honela geratuko litzateke:

25. artikulua:

Babes publikoko etxebizitzen eta atxikitako eranskinen erreferentziazko prezioa edo errenta, baita zuzkidura-bizitokien kanonaren zenbatekoa ere, etxebizitza gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko sailburuaren agindu bidez ezarriko dira, duten azalera eta dagokien pertsonen diru-sarrera maila kontutan hartuta. Ondorio horietarako, etxebizitza edo bizitoki motaere kontuan hartuko da, baita kokapen geografikoa, edukitza-araubidea, kontserbazio-egoera, antzinatasuna eta arrazoituta ezarritako beste alderdi batzuk ere.

Prezioa edo errenta ezin da izan diru-sarreren %15 baino handiagoa, bizitokian bizi diren pertsonen diru-sarreren batura Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta adina edo txikiagoa denean.

C) 29. artikuluaren idazkera berria.- Kalifikazioaren iraupena. Honela geratuko litzateke:

29. artikulua:

Babes publikoko etxebizitzek eta haien eranskinek, tipologia edo sustapena edozein dela ere, babes publikoko kalifikazio iraunkorra izango dute, eta ezin izango dira inola ere salgai jarri.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Lege hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira berarekin kontrajarrita egon litezkeen lege- edo araubide- xedapen guztiak.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hoy los niveles de exclusión social y pobreza en Hego Euskal Herria son más que preocupantes. Las políticas públicas de corte neoliberal, las reformas, la crisis económica, el aumento progresivo de la precariedad laboral, los recortes, etc. han provocado que cada vez sean más los sectores de la población con insuficientes recursos económicos para hacer frente a niveles mínimos de bienestar (disponibilidad económica, vivienda, energía, alimentación, desarrollo infantil, ocio y cultura).

El mercado laboral actual, cada vez más precario y desigual, empobrece y no garantiza unos recursos económicos suficientes. Cada vez es mayor el fenómeno de trabajadoras y trabajadores pobres, que no llegan a fin de mes, que son víctimas de la pobreza no visible, como la energética, farmacéutica, o la pobreza infantil.

La discriminación se perpetúa aún más en el caso de las mujeres, en un mercado laboral segregado profesionalmente y que impide la necesaria autonomía económica que permita desarrollar un proyecto de vida independiente.

Asimismo, la situación de la juventud está muy lejos de lo deseable. Las personas jóvenes tienen totalmente limitado el derecho a un empleo que les garantice una vida que merezca la pena ser vivida, sufren elevadísimas tasas de desempleo y precariedad. En su caso, crearse un proyecto de futuro resulta del todo imposible.

Siendo cierto que existen unas normas mínimas que persiguen garantizar unos mínimos de protección social, como la Ley 18/2008 de 23 de diciembre para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, desarrollada por el Decreto 147/2010 de 25 de mayo de la Renta de Garantía de Ingresos y de la Ley 4/2011 que viene a modificar la primera, y la Ley 3/2015 de 18 de junio, de Vivienda, también es cierto que, actualmente, resultan insuficientes.

Las pensiones se vienen recortando por diversas vías (recorte de las nuevas pensiones, retraso de la edad de jubilación, pérdida de poder adquisitivo). Las prestaciones sociales, como la Renta de Garantía de Ingresos, dejan sin protección cada vez a más gente, y si lo hacen es con prestaciones cada vez más bajas. El sistema, que ya era insuficiente, se ha visto sometido a sucesivos recortes, tanto en la cuantía como en lo que respecta a la expulsión de determinados colectivos de la posibilidad de acceder al mismo. O no se reconocen como derechos, como las Ayudas de Emergencia Social o el derecho efectivo a una vivienda. Ha sido y es habitual su sustitución por la concesión, bajo criterios cada vez más estrictos y restrictivos, de ayudas económicas al efecto, en una cuantía también muy baja.

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria plantea un modelo económico y social alternativo al neoliberal, poniendo en el centro la defensa de la vida y del planeta por encima de los intereses de una minoría, la preeminencia del trabajo respecto al capital y las personas respecto al mercado.

Son necesarias políticas públicas efectivas y reales de reparto equitativo de la riqueza, creación de empleo de calidad (que sea socialmente útil, estable y con una remuneración justa), así como la necesidad de generar políticas de reducción y reparto del tiempo de trabajo. Es imprescindible considerar el trabajo en toda su amplitud, integrando el trabajo productivo y el reproductivo.

Asimismo, la Carta de Derechos Sociales defiende la necesidad de que las decisiones sobre las políticas sociales y laborales se adopten en nuestro ámbito territorial, lo que requiere avanzar en un Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social.

Dentro de este modelo alternativo, vemos necesario adoptar medidas que vayan encaminadas a garantizar y mejorar los derechos sociales, atajando la pobreza y la exclusión social. Para ello, planteamos la necesidad de modificar:

-La Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, con el fin de dar marcha atrás en los recortes aplicados en los últimos años en la Renta de Garantía de Ingresos, así como para mejorar la cobertura de dicha RGI y de las Ayudas de Emergencia Social.

-La Ley de Vivienda, para que el reconocimiento del derecho subjetivo de acceso a una vivienda de alquiler social sea real, obligando a las instituciones a dar respuesta a las necesidades sociales.

Para ello se plantea el siguiente

TEXTO ARTICULADO

Artículo 1: En relación a la Ley 18/2008 de 23 de diciembre para la Garantía de ingresos y para la inclusión social, desarrollada por el decreto 147/2010 de 25 de mayo de la Renta de Garantía de ingresos y de la Ley 4/2011, que viene a modificar la primera, se propone:

A.- Modificación del artículo 16 de la ley 18/2008, de 23 de diciembre para la Garantía de ingresos y para la inclusión social- personas titulares del derecho, en sus apartados b) y d), quedando la redacción de estos apartados como sigue:

Artículo 16, apartado b):

Estar empadronadas en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud. En los supuestos de empadronamiento por tiempo inferior al año, se admitirán pruebas que acrediten la residencia efectiva para permitir completar el requisito del año.

Si no se cumple ese periodo mínimo previo, deberán haber estado empadronadas en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante cinco años de los diez inmediatamente anteriores.

Artículo 16, apartado d):

Ser mayores de 18 años. Este límite mínimo de edad quedará exceptuando para quienes, no alcanzando dicha edad y reuniendo el resto de requisitos, se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

- Tener un empleo con ingresos insuficientes, en las condiciones previstas en el artiículo 20.2 de esta ley sobre la renta complementaria de ingresos de trabajo.

- Ser perceptoras de pensiones de invalidez.

- Tengan económicamente a su cargo a otras personas menores de edad o a personas adultas con discapacidad o con calificación de dependencia.

- Sean huérfanas de padre y de madre.

- Estuvieran unidas a otra persona por matrimonio u otra forma de relacioón permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación.

- Hayan sido víctimas de violencia de género.

B.- Modificación del artículo 20.- Fijación de la cuantía. Se modifican las letras b y c del apartado 1; la letra b) del apartado 2, y se añade al final del artículo un nuevo apartado con el número 3. La redacción de todos ellos queda como sigue:

Artículo 20, apartado 1.b):

La cuantía mensual de la prestación aplicable a cada unidad de convivencia vendrá determinada por la diferencia entre la cuantía de los ingresos mínimos garantizados por la prestación para las unidades de convivencia como la de la persona solicitante y los ingresos disponibles en su unidad de convivencia.

A tal efecto, los ingresos mínimos garantizados se definirán como porcentajes del salario mínimo interprofesional y serán los siguientes:

- 100% del salario mínimo interprofesional para las unidades de convivencia unipersonales.

- 150% del salario mínimo interprofesional para las unidades de convivencia de dos personas.

- 200% del salario mínimo interprofesional para las unidades de convivencia de tres o más personas.

Para la determinación de los ingresos disponibles de la unidad de convivencia se tomarán en cuenta los rendimientos de todos sus miembros, en los términos previstos en al sección 2o del presente capítulo.

Artículo 20, apartado 1.c):

Para las unidades de convivencia del tipo definido en el artículo 9.2.a, los porcentajes para el cálculo de la cuantía de los ingresos mínimos garantizados serán los mismos que los fijados en el apartado 1.b) de este artículo.

Artículo 20, apartado 2.b):

2. En el caso de la renta complementaria de ingresos de trabajo:

b) La cuantía mensual de la renta complementaria de ingresos de trabajo aplicable a cada unidad de convivencia vendrá determinada por la diferencia entre los ingresos mínimos garantizados por la prestación para las unidades de convivencia como la de la persona solicitante y los ingresos disponibles en su unidad de convivencia.

A tal efecto, los ingresos mínimos garantizados se definirán como porcentajes del salario mínimo interprofesional vigente en el momento de la solicitud y serán los mismos que los fijados en el apartado 1.b) de este artículo.

Con el fin de evitar que los ingresos del empleo puedan perjudicar a personas perceptoras de la RGI, quedarán excluidos del cómputo determinados porcentajes de ingresos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena correspondientes al solicitante o a otros miembros de su unidad de convivencia. Reglamentariamente se establecerá la fórmula para la aplicación de dicho porcentaje.

Nuevo apartado con el número 3 en el artículo 20, que queda como sigue:

Artículo 20, apartado 3:

A partir de la entrada en vigor de la presente Ley, dicha cuantía se actualizará anualmente como mínimo, conforme al incremento mayor que sufran el SMI o el IPC del ejercicio anterior.

C.- Modificacion del artículo 17.-Concurrencia de titulares, en su apartado 2 quedando la redacción de este apartado como sigue:

Artículo 17, apartado 2:

En el supuesto de que en una misma vivienda o alojamientos existieran varias unidades de convivencia sin que existan entre ellas vínculos de los previstos en el artículo 9.1b), todas ellas podrán acceder a la titularidad, si cumplieran los requisitos establecidos, sin límite en cuanto a número de ayudas percibidas en una misma vivienda o alojamiento.

D.- Modificación del artículo 23.- Duración del derecho, que queda redactado como sigue:

Artículo 23:

Se reconoce el derecho a la renta de garantía de ingresos en todas sus modalidades mientras subsistan las causas que motivaron su concesión y se cumplan las obligaciones previstas en la presente Ley, sin necesidad de fijación de periodos temporales.

E.- Respecto a la sección 3ª, relativa a las Ayudas de Emergencia social

Modificación del artículo 44.- Definición y naturaleza, en su apartado 1, cuya redacción queda como sigue:

Artículo 44, apartado 1:

Las Ayudas de Emergencia social son prestaciones no periódicas de naturaleza económica configuradas como un derecho subjetivo de todas personas integradas en una unidad de convivencia, cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social y que cumplan los requisitos específicamente regulados para el acceso a la prestación.

Supresión del apartado 3 del artículo 6. Por estar en contradicción con el artículo 44.1 modificado.

Artículo 2: Respecto a la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda del País Vasco se propone:

A) Nueva redacción del artículo 9.- Modos de satisfacción y requisitos de exigencia del derecho subjetivo, en sus apartados 1, 2 y 3, cuya redacción queda como sigue:

Artículo 9, apartados 1, 2 y 3:

1. La satisfacción del derecho a la ocupación legal de una vivienda digna y adecuada deberá ser realizada por parte de las administraciones públicas vascas con competencia para ello mediante la puesta a disposición, en régimen de alquiler, de una vivienda protegida o de un alojamiento protegido, o incluso de una vivienda libre en caso de su disponibilidad por causa de programas de intermediación u otros, con la renta o el canon que corresponda en cada caso.

2. El sistema de prestaciones económicas de vivienda nunca será sustitutivo del derecho recogido en el apartado anterior.

3. Para la exigencia ante las administraciones públicas competentes del derecho de acceso resultará necesario cumplir la totalidad de los siguientes requisitos:

• No hallarse en posesión de vivienda ni de alojamiento estable o adecuado. La no adecuación de la vivienda podrá deberse a razones jurídicas, de habitabilidad, de tamaño, de capacidad económica o cualesquiera otras que dificulten una residencia cotidiana y normalizada.

• Hallarse válidamente inscrito en el Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida y Alojamientos Dotacionales.

B) Nueva redacción del artículo 25.- Precio o renta de las viviendas de protección pública y renta o canon de los alojamientos dotacionales. Su redacción queda como sigue:

Artículo 25:

El precio o la renta de referencia de las viviendas de protección pública y sus anejos vinculados, así como el importe del canon de los alojamientos dotacionales, se establecerán por orden del consejero o consejera del departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco en función de la superficie de aquellos, y el nivel de ingresos económicos de las personas destinatarias. A estos efectos se considerará también el tipo de vivienda o alojamiento, su ubicación geográfica, su régimen de tenencia, estado de conservación, antigüedad y otros aspectos que se establezcan motivadamente.

El precio o la renta no podrá superar el 15% de los ingresos cuando el conjunto de los ingresos de las personas que conviven en la vivienda sea igual o inferior a la Renta de Garantía de Ingresos.

C) Nueva redacción del artículo 29.- Duración de la calificación, cuya redacción queda como sigue:

Artículo 29:

Las viviendas de protección pública y sus anejos, sea cual fuere su tipología o promoción, tendrán la calificación permanente de protección puública, sin que en ningún caso puedan ser puestas en venta.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de esta Ley quedarán derogadas todas las Disposiciones legales o reglamentarias que entren en contradicción o se opongan a la misma.

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

SINADURA ORRIA . HOJA DE FIRMAS

IZENA NOMBRE	**ABIZENAK** APELLIDOS	**NAN** DNI	**SINADURA** FIRMA	**ERROLDAKETA** EMPADRONAMIENTO

carta de los
derechos sociales
euskal herriko
eskubide sozialen
Karta